


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO APIRILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,5 igo ziren 2004ko apirilean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko apirila, 2003ko apirilarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %4,7 gehitu ziren.

2004ko apirilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,5 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta apirileko urte arteko tasa %4,7ra iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*)Gehikuntza apirileko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2004ko apirilean, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,8 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera desberdina izan zuten: aurreko hilaren aldean %0,7 igo zen Eraikuntza eta %1,0 igo ziren Obra Zibileko lehengaien kostuak, hau da, hiru hamarren gehiago. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratu gero, zeinu desberdineko ibilbideak izan zituztela ikusiko dugu: Eraikuntzako lehengaien kostuak %5,1 hazi ziren, eta obra zibilekoak, aldiz, %4,7.

Apirilean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiek izan zituzten: *metalezko hoditeria* (%8,2), *asfalto-produktuak* (%6,7), *burdina eta altzairua* (%4,7) eta *petroliotik eratorritakoak* (%3,1) lehengaiek. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten, besteak beste, *energia elektrikoa* (%-4,9), *leherkariak eta*

gasak (%-3,1), Karea, igeltsua eta eskaiola (%-2,7) eta garbitzeko eta txukuntzeko materiala (%-1,1) lehengaiek.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *metalezko hoditeria* (%23,6), *burdina eta altzairua* (%15,8), *petroliotik eratorritakoak* (%9,0), *asfalto-produktuak* (%8,2) eta *karea, igeltsua eta eskaiola* (%8,0) lehengaiek. Bestalde, urteko arteko prezioetan (2004ko apirila, 2003ko apirilaren gainean), murrizketak izan zituzten *energia elektrikoa* (%-8,5), *harri elaboratua* (%-5,0), *bulego-materiala* (%-3,4) eta *leherkariak eta gasak* (%-1,8) lehengaiek.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO APIRILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	112,5	0,5	4,7	4,6	
ERAIKINAK	112,3	0,5	4,8	4,6	
OBRA ZIBILA	113,0	0,6	4,4	4,3	
LEHENGAIEN KOSTUA	108,9	0,8	5,0	4,8	
ERAIKINAK	108,9	0,7	5,1	4,9	
OBRA ZIBILA	108,8	1,0	4,7	4,4	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,8	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxe: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es